

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresari barazkiak hornituko dizkion enpresa Agurainen kokatuta dago. Enpresa honek produktu ekologikoak ekoizten ditu modu jasangarri batez. Produktuak zuzenean erosiko ditugu, bitartekaririk gabe; ez egoteko hainbeste alderik ekoizlearen etekinaren eta azkenengo saltzailearen etekinaren artean eta gure herrialdeko produktuei bultzada emateko.

Fruituak hornitzeaz Valentziako enpresa bat arduratuko da. Enpresa honek mota guztietako frutak ekoizten ditu modu ekologiko batean. Produktuak gure enpresak kontratatuko duen kamioi-enpresa baten bidez eskuratuko ditugu. Kamio horrek enpresak erositako produktu guztiak gure dendara eramateaz arduratuko da.

Gure enpresak beste alde batetik, akordio internazionalak egingo ditu. Hau da, gure hornitzaileen artean, adibidez, Colombiako kafean espezializatuko enpresa egongo da. Gure dendetako etiketak egiteko, arte grafikoetan oinarritutako enpresa bat kontratatuko dugu.

Eguna bukatzerakoan gure denda garbitzeko, garbiketan oinarritutako enpresa bat kontratatuko dugu, hala nola, Limpiezas Rituerto S.L.

Bestalde, gure enpresa ikusgarri izateko, publizitate enpresa bat kontratatuko dugu.

Gure enpresaren webgunea aurrera eramateko, "Wix" plataforma erabiliko dugu eta hori dela eta, hilerotako tarifa bat ordaindu beharko dugu. Greenpeace eta WWF GKE-tako laguntza izango dugu, ekologiaren inguruan aholkuak emateko.

